

SARRERA

Guraso agurgarriok:

Esku artean duzuen Ebaluazio Gida hau zuen seme-alaben ebaluazio informeen osagarri baliagarria da, izan ere, informe honetan Urteko Helburuak zehazturik daude, zuen seme-alaben lorpenak helburu hauen arabera ebaluatuko direlarik.

Haur Hezkuntzan helburu hauek hiru arlo ezberdinetan sailkatzen dira LOE-ren ezarpenaren ondorioz:

- **NORBERAREN EZAGUTZA ETA AUTONOMIA PERTSONALA**
- **INGURUNEAREN EZAGUTZA**
- **HIZKUNTZAK: KOMUNIKAZIOA ETA IRUDIKAPENA**

Honela beraz, Urteko Helburu hauek oinarritzat izateak, etapako ikasturte bakoitza bukatzean zuen seme-alabek izan dituzten lorpenei buruz informatzea ahalbideratzen du.

Irakasleen lana ere ildo honetatik doa, izan ere, euren helburua zuen seme-alabek ikasturte amaieran helburu horiek lortzea da, horretarako urtean zehar hainbat jarduera landuko dituztelarik, beti ere helburu horiek lortu asmoz, noski.

Modu honetara, ikasturtean zehar irakasleekin izango dituzuen elkarrizketetan Ebaluazio Gida hau izango duzue oinarritzat, non ikasle bakoitza zehazturiko helburu hauen arabera ebaluatuko den.

Bestetik, aipatzekoa da Gida hau eta bertan dauden helburuak Nafarroako Ikastola guztietan berdinak direla, izan ere, Ikastolen Elkarteak koordinaturik, Ikastola bakoitzeko irakasle talde bat prestatu baitzen lan hau burutzeko. Horregatik bada, heziketa eskaintzaren berrikuntza eta hobekuntzarekin dugun konpromisoa agertu du ikastolak.

Azkenik, jakinarazi nahi dizuegu ikasturte amaieran banatuko zaizuen idatzizko informean helburu bakoitza ebaluatzeko bi balorazio kode erabiliko direla:

- AE: Aurrerapen egokia.
- HB: Hobetu behar.